

Oda eder bati ene plagio ausarta

OROIMENAREN ORAINA. Paradoxa ote Benito Lertxundiren azken diskoaren titulua? Esamesek haren oroimenaren galera zabaldu baitzuten iraganean. *Oroimenaren oraina* lanak oraina lehenesten du. Esanak haizeak daramatza, lanak ordea, present dira betiko. Lan honetan, oroimenaren orainean dakusa bere burua Orioko bardoak.

Azken lan hau harlauza distiragarria da bere harbide luzean. Lertxundik bere obra-musikala euskal partikularitasunetik abiatu zuen, eta bere partikularitasunera egin du bide –utikan, munduko unibertsaltasunerantz bidean beste harlauza berri bat jarri duen topikoa!–. Bideko lekukotasun eta erakusle dira bere kanten hitzak, baita musika ere. Kanta bakoitzaren hitzak –poemak– paregabeak dira ere oraingoan. Ez dira bidenabarrean hautatuak, ez kantatuak. Kantariak badie zer eskertu Fernando Pessoa, Jon Maia, Jose Ramon Uriarte, Kirmen Uribe eta Pako Aristi poetei. Halaber, laketuak ere senti daitezke eurak, beren hitzak bardoren musikan entzundakoan –Pessoa berpizturik barren!–. Bardoa diot, honen letrak ere berezko tokia hartzen baitute *Oroimenaren orainaren* bidean. Ez dira horiek oda sinfoniko honen hitz-emaila bakarrak. Olatz Zugastiren poema eder entzungarria duzu. Poema bakar batek ez du gozakaizten sinfonia paregabe hau.

Oroimenaren oraina.
Benito Lertxundi

Elkarlanean S. L.
2011ko udaberrian
argitaratua.



Berriz eta askotan, erromesen legean abiatu naiz harbidean, harzuri distiratu hau bizkar-zorroan hartuta; ene diskurtsoa funtsez moldatu aldera abiatu ere:

“Ez dut nihaur gogoratu, ez ezagutu nahi. Alferrik nago, naizenari begira banago. Orainak ez beste ezerk nau ezagutzen. Nor da erromesa, funtsezko gogoan dabilena ez bada? Nik ere laket dut itsasadarra, Bidasoaren halabeharra, suaren, uraren eta maitasunaren bila abiatu ziren haiek bezala. Alabaina, utzidazu etxera itzultzen, utzidazu zure etxera sartzen, utzidazu zure ahora bota nituen arantzak erauzten, maitasunak karirik ez duela ikasi baitut. Gudan dago zuhaitzen denbora, elkar maitatu ondoren, ohean lo. Azken muxu bat behar dut gau luze honetan, lokartu ezinean bainago. Basarte honetako burrunba artean galtzen naiz eta bakardadean dut pentsatzen... Irail tristean”.

Horra ene poema-plagioa. Bar-katu ausardia. Idatz dezadan musikaz, horretaz ere arras ezjakina naizen arren. Diskoz disko, harlauzarik harlauza, sortzaile honek

geroz eta samurrago –errazago– uztartzen ditu hitzak eta musika. Areago eta samurrago uztartzen dituzte ere “haren” musikariak beren instrumentuak. Laket dut Pello Ramirezen eskusoinuaren eta Olatz Zugastiren harparen arteko harmonia. Maite ditut Otxoa de Eriberen arrabita eta Juantxo Zeberioaren pianoa soinu bakarrean, baita Cajaraville, Bikuña eta Unzuren arteko jardun bateratua. Maite eta laket ditut Lertxundiren eta Zugastiren aho bateko eta aldi bereko jarduna. Utikan “sortzaile honen atzean bertze sortzaile handi bat dagoen topikoa ere!”. Nago baina, Benito Lertxundiren obran gero eta arrasto sakonagoa eta nabarmenagoa duela Olatz Zugastik. Oda eder honi eskaini diodan oda lotsagabea duzu enea. Hitzok iragan dira, goza eta bizi dezagun *Oroimenaren oraina*. ■

Mikel Asurmendi



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!
artean
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA